

KIROLAZ BESTE, KIROLTASUNEZ

Ariketa fisikoaz bizi naizenez, ez zait arrotza kirolaz pentsatzea, eta egun gutxiren bueltan entzundako bi notizien harira izan da oraingoa: Donostiako udalak egin behar zuen kirol txartelaren erabileraren murrizketa –ondoren atzera bota zuena–, lehena: hainbeste dira erabiltzaileak, kiroldegiak gainezka daude zenbait ordutan: kirol-txartelaren jabeak 57.000tik gora omen Donostian, erroldatuen herena; benetako errekorra. Egunkari ezagun batean korrika luze aritzearen inguruko artikulua tonuak jo nau bigarrenik: gero eta zabalduago dagoen ohitura batez ari zen, maratoiaren 42 kilometroetatik gorakoaz, Italiatik Norvegiara egiten omen denaz –4.500 kilometro bi hilabetetan–, eta antzeko norgehiagoken ondorioez. Tonuaz diot, orain urte batzuk zalantzan jarriko zena, nolako kiroltasunez tratatua den egunotan antzematerakoan.

Aipatu artikuluan, hainbat ikerketaren ondorioak komentatzen ziren: kilometro pila korrika egiteak masa entzefalikoaren % 6'1 murrizten duela, oinak eta belaunak kaltetuak gertatzen direla, haluzinazioak ere sortzen direla eta, puntu batetik gora, rabdomiolisi arriskua dagoela, giltzurrunen kalte larriak tartean. *Kiroltasunez* diot, informazio hori eman ondoren, gauzak “bere onera” ekartzen direlako: murrizketa entzefalikoa itzulgarria da; galtzen edo kaltetzen den kartilagoa, errekueratu liteke; gehiegizko oxidazioa gorputzak berak konpentsatu ahal du, eta abar. Gehiegikeria batez ari da, bai, baina nola ez erlatibizatu kirolaz ari garenean?

Kirola gauza errespetagarria baita, eta urte gutxi batzuk lehenago erokeriatzat kontsideratua “azken tendentzia” bihur liteke gero, eta kontuz horrekin. Adibide bat: egunkari bereko orain hamar urteko artikulua batean, Crossfita aipatzen zen, AEBetan hedatzen ari zen muturreko joera gisa, eta haren eiteaz aritzerakoan, haren fundatzailearen hitzak ekartzen zituen: “aniletatik jausi eta lepo-hezurra haustearen ideia arrotza bazaizu, hobe duzu guregana ez hurbiltzea”, edo “giharrak hautsi arte geure burua behartzea: horixe da *Crossfit*aren onuretako bat”. “Modan dagoen *crossfit* kirol mota berriak Donostia hartu du” zioen EiTbko joan den udazkeneko informatiboak, eta modu guztiz errespetagarrian da tratatua egun medio guztietan: merkatu tendentziak... Garai batean erlijioak zuen lekua kirolak betetzen du egun, erlijio laikoa bilakatuz. Eta garai batean harekin gertatu bezala, nor ausartuko da gurean egungo kirolaren berezko iruzurra seinalatzera?

Zertaz ari naiz, baina? Garaiz jaiki eta eguneko lana hasi aitzin, lasterka egitera irteten denaz?; edo jaieguna izanda, mendirako txangoa egiten dutenez? Lagunekin futbol edo pilota txapelketetan parte hartzen duten horiez? Ariketa fisikoa, lagunarteko jolasa eta “kirola” gauza bera eta bakarra direla esatea nahita inposaturiko nahasmendua da. Ezagutzen dugun kirol eredu XX. mendean sortutako fenomeno berria da. Olinpismo modernoak ez du Greziako jokoekin zerikusirik, eta “masen kirolak” ezinezko lirateke

telebistarik gabe. Industrializazioak ekarritako aldaketek ezarri dute ezagutzen dugun kirol eredua: espektakulua eta negozioa da lehen begiratuan eta, horrekin batera, masen identifikaziorako eta asaskatzerako fenomeno garaikidea. Baina, hori besterik ez? Horrek guztiak sortzen duen zarata eta kearen azpian bada fenomeno sakonagorik, jendartearen eta norbanakoaren eraikuntzan funtzio garden bat duena. Propagandak mailukatzen digu “kirola” osasuntsua dela, haren praktika txiki-txikitatik sustatu beharrekoa, dituen “onura fisiko, psikologiko, integratzaile guztiengatik”, eta abar. Baina, horretarako, edozein ariketa fisiko, edozein jolas “kirolak” kolonizatua behar du izan. Era honetara, errendimendua eta espektakulua lehenesten duten ariketen menpe itoak geratuz jarduera ludiko guztiak. Eta nahasketa interesatu horretan gorputza bera –berezko duen mugimendurako eta jolaserako premia eta grina– zikiratua eta bortxatua da, makinei dagokien errendimendu eta produktibitate erduetara murriztua. Gorputza mugiaraztea eta gozatzea da “kirola” egitea? Edozein kirolari profesionalek ezeztatuko luke hori. Bizikidetzatza sustatzea? Kirol eredua militarra da, eta konpetentzia gupidagabea sustatzea ezinbestekoa du. Finean, gorputzarengandik –bere sentipen sakonenetatik– urrundu beharrean dago “benetako kirolari” bilakatu nahi duena. “Maiz errepikatu den eran, bilakaera industrial hertsiki dago lotua gogo- eta bizi-uzkurtze batekin; horrek esplikatzeko du zergatik egiten zaigun horren zaila kanpo-ariketa egitea, afektuak adieraztea eta bizi-poza sentitzea; eta hauek azalertzeko etengabeko norgehiagokarekin dugun akuilatu beharra... Gure ekimen fisiko amorratuak duen helburu sakona gorputza blindatzea da, berau gogamenaren kontaminaziotik libratzea; kanpotik etor litekeen ezezagunenganako sentiberatasun zirrikiturik egin ez dadin... Bilatzen dena ez da errepresioa, zentzumenen kontrola baizik, haien sorburutik beretik” dio Ignacio Castrok.

Nor ausartuko litzateke, ordea, gure abertzaletasunean euskal selekzioaren eskaria albo batera uztera? Edo kirol profesionalean emakumeek duten leku subordinatua ez salatzerara? Nor kiroleko elite profesional pribatuei laguntza publikoak murriztera, edo edozein egunkari edo albistegitatik futbol edo pilota txapelketei buruzko kontakizunak alboratzea? Egia da San Mamesen katedralean hogeita hamar mila lagunetik gora biltzea ohikoa dela, eta horrek “tratamendu informatiboa” eskatzen duela. Baina horren gertakari garrantzizkoak direnez, ez al litzateke komenigarri orain arte kirolaren orrialdeetara bultzatzen diren gertakizunen inguruko informazioa, Politika, Ekonomia edo Kultura arloetara pasa araztea? Eta orriok, Adurizen golez edo pilota txapelketetako kronikez bete beharrean, kirola fenomeno ekonomiko, sozial edo kultural gisara tratatua izatea? Kirol-txartelaren erabileraren errekorrek eta estadioen betekadek mereziko lukete.

Post-data: Artikulu hau BERRIAko iritzi sailean argitaratzeko igorria izan zen orain hiru hilabete, baina ez dute argitaratu. Bistan da zenbait gaien inguruan marra gorriak ondo marraztuak daudela bertan ere. Orain gutxi, gaiari buruzko

eztabaida sustatzeko bi artikulu argitaratu zituzten. Gehiegikeriekin kritiko izan arren, “kirola = osasuna” dogma ukiezina da guztientzat:

http://www.berria.eus/eztabaidagela/1863/2016-05-08/osasuna_eta_kirola.htm